

LARAKOETXEA'TAR B. J.

GORBAIE'KO GAZTAGINTZEA

1926'G. URTEKO LOTAZILA'REN
5'BAN IRAKURITAKO ITZALDIA



GORBAIE'KO GAZTAGINTZEA

Ezkara ludi aunetan orok eretxi batekoak; ez dakusguz guztiok bardin gauzak: batzuk besteak baño auferago, sakonago ta zeatza-
go dakusguz; batzuri eder eta garantzitsu deritxena, beste askori itsusi ta ezteus deritxe; batzuentzako yoritsu dana, beste askorentzako ezereza ta utsa. Ola-gizonak ardura gitxi artu daroa lugin-arazoakaitik, eta itzulietara luginari min gitxi ola-gizonen gora-berak eta ezbeafak. Baña au egi-egia izanañen gure Euzko-efi maite aunen auferapena ta osotasuna bere seme guztien auferapenean eta osotasunean dago-ta, gure Efi au zifnez maite daunak bizibide guztietako aberkideen ardurea artu bear dau-ta, zuok Euzko-efi aunen auferapen eta osotasun-

zaleak-be-zaleak zarienezkero, artu dodan gai aunetzaz gogoz entzungo daustazuela uste dot, naiz ta nire itza emen alango izlari bikañak itz egin daben leku aunetan entzun izan dozuenik motelena ta gazbakoena izan. Azketsi, ba, ta neure itz ganorabako-saskilari baño, geyago begiratu gaiari; ez bildurikeratu azal eta koskol latzagaz, mamia gozoa izatea ba leiteke ta. Eta neuk ibaz; ezafen abegi ona egin daustazuen ezkeru, itzauferik asko dala deritxat. Azkespera ta nire alde z zakustez, eta aonek nire biotza adoretz eta ausardiz beteten dau. Orok Gorbaie'ra, ba, orain irudimen-egazkada batez, ango axe garbi-osasuntsua afluaz, artzai-ikusxuna ikusten.

Eztot uste Gorbaie'ko artzañak gaztagintzan gorengo mañan egongo diranik, ezta gorengoan ezeze erdikoan egongo diranik be; ni baña, artzain euzkotafak gaztagintzan eredutzat iminten enoa ta, neure asmoa aufera eroateko, niri bardin daust, gaztagintzertian gure artzañak gorengo mañan, naiz

erdikoan, naiz berengoan egon. Onegaz
baña eztot adirazi gura gure artzayakaitik
eztaustala ardura ondo naiz txafto egon,
eurei dagoken yakintzan aufera ala atzera
egon eta abar eta abar. Ez, olangorik ez. Nik
esan nai dodana da, nire oraingo asmoa
beteteko, nire gaia aztertu ta azaltzeko ori
guztiori bastañean geldituko dala, nire arloan
eztala sartzen, nire gai aunerri eztautsola
ikututen. Eta neure lantxo au argiego imin-
teko ta zuben aditasuna gitxiegi nekatzeko,
iru atal edo zatitan aurkeztuko dautzuet.
Lelengo atalean gaztaya egiteko bear diran
gertakuntzak azalduko dautzuedaz; bigaño-
nean gaztaya zelan egiten dan dakuskegu;
irugañenean bafiz eginaezkero gaztayari egin
bear yakona dikaskegu. Eta arlo-banatze au
eginezkero, asi gaitezan lelengo arlotik.

I ATALA

GAZTAYA EGITEKO GERTAKUNTZAK


Uda-iluntzan, eguzkia sarkalderantza
yausten danean Gorbaie'ko artzaña gabera-

ko iturriko ura ekañita, ala eraz ba'datorko. ura bide batez ekarteko ontzia esku batean. eta urutx-makila sendoa bestean artuta, badao mendia gora bere artalderantza txistuka, ala artzai-lagunekaz autuan, mendiari goyak artzen dautsoz, eta ardien atzetik yaritakoan txistu zoñotz batzuk egiten dauz, eta ardi uxoak aringa mendia bera ereskadaka bidezidoñak-zear txabola-alderako bidea artzen dabe. Ardiak ilunabañagaz bat eltzen dira txabola-aldera Aldaminpe'ko sakonera, ta emen, onaño artzai guztienak batera etoñiañen, eñez-eñez bereztuten dira ta bakotxa bere artesira doa, atxañizko ormadun artesira, batzekoak artesi batera ta umedunak *etzalekua* deritxon beste artesi legor-nasaie-go batera. Bein ardiak artesian, artzañak isten dau arantza-mota bategaz artesi-atakea, artzen dau lenagoko *kaikuen* ordezeko *kantia* deritxoen zinkezko ontzia, ta ardiak batzen asten da, aueztik bere uzkurtzaletasuna agertzen daun «aitea'ren» eginda. Ontzia istaf-artean dauela kukurumio yarten da, uñen daukon ardiari iztafetik oratzen dautso,

erapea ontzi-ganeratuteraño ardia beragantza dakar atzeraka, ta orduan esku biekaz eño banatatik elduta *zifi-zaña* beingo baten batzen dau ardia, naiz ta uxoen ta urdurien izan. Batzeorduan ardi otzana geldi, ausnarka, samea okertuta, atzealdea makurtuta egoten da, ta batzuk berez etorten dira artzañaren ondora. Lelengoa lez batzeandauz enparauak be ta, zubei siñiskaitz egingo yatzuenafen, batuek eta batzeko ardiak batera egonafen, artzañak nekez itxiko dau ardirik batzeke, batzekoak eunez gora izanda be. Bakotxak bere antzea dauko, ta artzañak berea. Ardi batzuk ofaitio zeregiñik eta lofik asko emoten dabe batzeorduan, gilberatiak diralako-edo: bein yauzika, bein korotz-txizgiñan (azketsi itzen gogortasuna) artzañari gogait-eragiten dautsoe, ta. (¿Zer egiten dauela uste dozue artzañak onango ardi gogaikañagaz? Len-baño-len antzutu, ta ostantxean ulea eta umeak azten onen bat ezpa'da, udagoienean artaldetik kendu).

Esneak batuezkero artzañak artesiko atakea idigiten dau ta ardiak ondo dazaben

txistu agintzalea eginda ta batera besoa eragita, ardiak artesitik aterata lafarantza abiatzen dauz, eta bera esneak artuta bere yauregian, zoi-telatzuko etxetxoan, bere antza emen dakuskezuen txabolan sartzen da (1), argia ixetuten dau, iriskia artzen dau



ta esneak beste ontzi aundiego batera iristen dauz, artzen dau bertatik legara, ta aiztoagaz txataltxo bat ebagita katiñu baten uretan befindu ta urtuten dau, ta ur legarduna be iriskitik bera ixurtzen dau, daukozan loi-

(1) Azalbena. *E* etzategia da, azpian inñeëa-gaz; *Z* zubiña edo abea. ta berau da artzafiaren yesaflekua ta etzategi-mugea. *S* sutegia *G-O* gaztan-olen lekua.

apufak iriskian gelditu daitezantzat, eta legafa iriskian bertan gelditu eztaiten, legafaren ganetik len irisi barik itxi daun esnea botaten dau iriskia bera, berak yateko aña itxita, legar-ondafak aurean eroan dagizantzat: au egindakoa iriskiaren beko mokoagaz ontzitxo esne irisian eraiten dautso, legafa ondo nastu dadin, ontzia oyal zuri ala margozkoagaz estaltzen dau loitu eztadin, eta suaren ondora epeletara eroanda artzañak etzategiko zubilean yezafita aparía gertetan diñardu. Eta ¿zer dala uste dozue Gorbaie'ko artzañaren aparía? ¿Okela-zefendada edefak Eñioja'ko ardao bizi-edakera-tsuagaz? Esnea ta gaztaya: esnea ta gaztaya gaur, esnea ta gaztaya atzo, esnea ta gaztaya eguberdian eta gabea. ¿Eta goxaltzen? Gorbaie'ko artzañak yataldi bi bakafik egiten dauz. Gorbaie'ko artzañaren yakiak ardiak esnea daukien artean esnea, gaztaya ta taloa dira, ta eurok yanda moñosko edefa dago.

Eta orain zuben aditasuna lar ez nekatzeafen aufera yafaitu-aufetik Gorbaie'ko artzañaren esne-iriskia zelangoa dan esango dau-

tzuet. Artzañiak bear dauzan tefesnak berak egin al ba'dauz, eztau erosiko eginda saltzen danik, eta au dala-ta esne-iriskia berak egiten dau. Dakusgun bere antzea ta tefbetasuna. Azkorakada bi emoten dautsoz gaztaña-adar azal-leun eta sendo samafari or udabafian azala urtsu ta beraz kentzen samur daukonean; bilalde ala *inguruan* azalari epai bi emoten dautsoz alkañen artean neurkin-iruren ($\frac{1}{3}$ n.) bateko bitartea itxita; gero adafaren erara ta lengo epai bien bitartean eta eurok alkañegaz batzeko irugañen epaya dagi, ta epai aunetatik oratuta ezez-ezez azala oso-osorik ateraten dau, adafean batutako ingi-ofia adafaren erako ertzetik elduta aterako geunken lez; gero leundu ondo gernaldeatik, tontofik ala lakatzik ba'dauko, bean estu ta goyen zabal onil-antzean yañi, artzain-makila-sendoerako gaztaña-adar bat moko batean kakoduna kakorik eztaukon mokotik bera bifintzatu ta gaztañazal onil-antzekoaren ertz biak bifintzan sartu onila manatu eztaiten azalaren aurka-indafagaz, eta bifintzan sartutakoan biringa biak goyan

eta bean ari sendo-samafagaz estu (lotu), ta aor esne-iriskia eginda bealdeko mokoan onilaren zulo ondoan kakoagaz. ¿Zetarako dan kako au? Bear eztanean esne-iriskia txabolako kako *batetik* eskegiteko; kako batetik diñot beren-beregi, txabolea kakoz beterik egoten dalako. Batek baño geyagok egingo dau berekautan: «¿eta iriski ofetatik irisita esnea garbi gelditu, naizta iriski-zulo bakar ori estuena izan?». Ezta ez itaun au ain bidebako itauna be, ta ofegaitik esango dautzuet artzañak zer asmau dauen iriski onetatik esnea garbi-garbi iristeko. Edonok daki asunak bixartsuak diriana ta bixar kezkatioak nainon eta safatu daukiezana; ba artzañak esnea irisi bear daun bakotxean iriskian esku bete asun sartzen dau eta loiei eurokaz safatzen dautse zuloa, esneari igeroten itxita; eta, siñistu egistazue, eztago saldokietan iriskirik artzaien gaztañazalezko asundun iriskia langorik; iriski aunetatik zear ezta igeroten loi-bildertxo bat bera be, ezta ulerik be; saldokietan erosten diranai bafiz loi asko igeroten yakena ¿nok eztaki?

¡Gero artzaña atzeratu ta basatitzat etsiko dabe askok! Artzañen eta lugiñen lepotik bafe egin baño oba legokigu geure asabak artzain-lugiñak izan doguzan euzkotañoi, euroi auferatzeko, eñirik auferatuñetako lugin-artzayen mañara, ta biar ba'da gorago igoteko, idigi ta lagunduko ba'geuntse batezle yakintsuak eta.... txindidunak; bai txindidunak, baña aonetzaz oingoz bego, lar eta egoki eztan lekuan berotu enadin. Esneak sutondoan itxita yarduketa luzeegia ebali ete-dogun nago-ta, esneagana osterabe; dakusgun legarñak artu daunez, gitxiegi botaezkero artu ez be egiten dau-ta. Au dala-ta norbaitek itandu legisku «¿zenbat legar bota bear yako, ba, esnari gogortu daiten? Amen itaun aunerñ Bizkai'ko mendirik goitsuenean 23 urte artzaintzan igaro dauzan gizon gaste-buru-argi batek emoten dautson erantzuna; sañitan argiztauko nau idazkai aunetan eta añastartean diminkedaz bere itzak. Entzun: «... Gorbaie'n onetaraxe egiten dok: atara esnea ta bertatik legaña emon, baye asko ez, esne epelak legar

gitxiegi bear dauelako.... Legafa norberak ikusi bear yok: gaur geiegi ba'yaukek bier gitxiegi. Gitxienez, legafa emonda ordu bet bear yok (esneak gogortuteko) eta lenago gogortuten ba'dok, eztok gaztai ona izango, ta gitxiegi bota bearko yakok....» Itz onaik dagerskuenez artzafiak legafa eretxi baten botaten dautsoe esnari, ta eztaukie aonetan neuñi egin-egiñik: norberaren yakituria neuñi. Ganera itz ofeixetatik agiri danez, legar gitxiegi ta gaztai ohea, gaztai gozoagoa, apitzegoa; beraz legafa bear-beafekoa bakafik bota bear zako esnari, gaztaya ona, gozoa ta epitza izango ba'da; gitxiegi botaten ba'da, bafiz, esnerik ezta gogortzen. Itz ofeitan daukagun irugafen ikaskixuna esne epelak otzak baño legar gitxiegi bear daula da. Dagizun, ba, gure esneak gogortu dirala, legafa artu dabela, ta dakusgun zer dagian orain gure artzafiak apalostean. Entzun dogunez, esneak—legar lar bota ezpa'yako—gitxienez ordu bete bear dau gogortzeko; artzafiak, ba, esneak gogortu dirala dakusanean artzen dau *maletxa* ta *mamia*

erein eta erein biferin-biferin egiten dau; eurak artzañak esan daroenez *nastu* egiten dau; nastute au ondo ta arduraz egin bear dan gauzea da, mami-atalik biferindubarik gelditu eztaiten. Nastu ta laster zapaldu egiten da «....gero nastu ta iru bet *minuto* naikoa yok (mamiak); gero zapaldu apur bet, asko zapalduetzkeroko koipe gitxiego yaukek gaztaya, edo legofago izaten dok; *denpora* asko eztok bear zapaletan, erditik eskuiegaz emonezkeroko *pasada* bat, ezez urteiten yeutsek gatzurek...» diño gure artzai txeratsuak. Iru iroiren naikoa dira, beraz, nastu-zapaldu bitartean: eskuak garbitzeko lain asti. Zapaldu, gure artzai idazleak diñonez, aonetara egiten da ondoen: erditik mami nastueri emon ebagi bat eskuiegaz, eta gero esku biek alkafi dautsela ta esku-bafuak ganaldetik eta esku-ganak azpialdetik dirala mami-ganean imini ta aonan apurka-apurka danean sakatu: aonan mamia eskupean ontziaren ondarean gelditzen da, gatzura bafiz ganera dator eta eskuak gatzultzan ondatzen dira.

Asko baña ezta zapaldu bear: «zapaldu apur bet» entzun dogu abo aituagandik.

Eta orain, irakurle maite-yasankoiok, zubei beste atsedeen-alditxo bat emoteko ta bigaŕen atalean sartu baño len, len aitatu dodan *malet.ra* zer dan azalduko dautzuet, zetarako dan ikusi doxue-ta, artzañak gaztagintzan erabili oi dauzan teŕesnak zelant bait ezaunak izan dakizuezantzat. Artzañak maletxa egiteko gai biña uŕin yoan beaŕik eztauko. Norbaitek «Bizkai-Everest» deitu dautson mendi-egaletan gorostia ugeri dago, ta, dakizuenez, gorostiak gaztea danean aldortxoaren (enbor) biñaldean burestunantzera emoten dauz adafak, aldortxoaren biñalde osoan botaten dauz kimuak, aterkiardatzaren biñalde guztitik burni-makilatxoak urteten daben lez. Artzañak ebaten dau, ba, ofetariko gorosti-adar gazte-kimutsu bat neurkin-iru amaŕen kimuak baño beragotik, gora begira dagozan kimuak okeŕetara begira iminten dauz, mako-orkoa emonda ta erdiko ardatzaren biñaldean mokoak ari sendo-samaŕagaz estuten dauz, eta aonan

maletxak or afautzak iribietan ebalten dan lanabasa ala teſesnearen antza artzen dau: estutakoan aldikadatxo baten eskegita eukiten da igertu daiten eta orduan azala kentzen yako, *zurituten* da, ta maletxa ebalteko gertu dago ta beso bizkoſa baño eztau bear. Eta goazan bigaſen atalera.

II ATALA

GAZTAYA-EGIKEREA

Esneak zapalduta mamia ondaſean eta gatzura ganean itxi doguz, baña orain dator gaztagintzeak daukonik gatxena edo zaſena. Ba'dakit onezkero gaztai-usaſiak zuben surak iguindu dauzana, baña bein gatzaya zelan egiten dan entzuten erdu zarienezkero, erdi-yakiſnean eta beſena yakinge gelditu gurako eztozuena be ba-dakit. Auſera, ba.

Esneak zapaldutakoan, artzen dau artzaſiak aiztoa, ta mamia ainbat zatitan ebaten dau. Ara zelan: mami-ontziaren ondoa lerbilezkoa edo makozkoa da-ta, mamiaren azala be lerbilezkoa da, ta txiſinkea ala

uztaga dirudi; ba txifinka ofen ertzean kulatz bi batu edo alkartu egizuz lefo zuzenbidez; gero beste bi lengo bietara bidebardin dala, lefotik lefora bost bat neurkin-eunen-bidea itxita; gero beste bi ta beste bi, aonan atzenengo kulatz biek txifinkearen ertzetik-at urtenarte. Era aonetara ebagitakoan, lengo lefoak goitik bera zuzen eta bitarte-bafdiñak utziaz ebakiten dira; aonan bafuko zatiak laukotuak edo ertz-bardiñak urtengo dabe, ertzetakoak bafiz ertz bi zuzenak eta bestea lerbilezkoa (lefo-bil-zko) edo makozkoa daukiela. Zatiak aundiegiak ez-tira egin bear, eragiten zail izaten da-ta. Mamia ebagitakoan artzen dau artzañak mami-zati bat eta gaztan-otzaran iminten dau; artzen dauz beste bat ala bi be ta gaztan-otzarara; ta zatiok alkañi oratuta gorputz bat dagientzat atz orkoloakaz birintzen dauz, beste atzamañak gaztan-otzarean eusten daukoz-ta; gero beste atal bat eta beste bat eragiten dauz, eta onaik be, besteai oratu eragiteko, atz orkoloakaz apur bat birindu, ta beste atzamañakaz estutu ta sakatu gatzu-

rak urten dagien, gaztan otzarean lufera yausi eztakion ontzi-mustúrean ertzetik dau-tsola. Mamia gaztan-otzarearen ertzetatik zerbait yagiten danean, orduan estututen da apurka gaztaya, gatzurik aundienak bota dagizantzat, eta gaztayari bear daun mamia emon yakonean, orduan eztago eskuartean estututa estutu baño, gatzurak zeatz atera, bear dauen orkoya emon eta azala aterateko; óretarako safitan egin bear dana da gaztaya gaztan-otzaran goikoaz bera ta azpikoaz gora imini, ertz guztietatik eskuekaz sakatu ta azala aterateko; eta gaztagin onak estautzo itxi bear gaztayari gaztan-otzara-aztañenik, óretarako eskuekaz gaztan-otzara-ertzak ondo yabonda, goyen bean baño zabalago urtein eztaien: gaztan-otzara-ertzik eztaitelä agertu gaztayan.

Gatzurek ondo urten dakion, gaztayari etxako azalik egin bear, ondo-ondo estutu arte: azala bardinduaz eta orkoya emonaz egingo yako. Eta azala aterateko eztira esku guztiek bardin onak, esku batzuk gaztai azal-leuna beste batzuk azal-latza ateraten

dabe-ta; ofetarako esku beroa baño ohea da otza, otzak azala leuna, beroak bafiz latza ateraten dabe-ta. Gatzurak atera ta dagokion orkoya emon ezkerro gaztaya egin-da dago.

Eta onagiño eldu garanezkero berez-berez dator itaun au: ¿zenbat esne bear da gaztai bat egiteko? «Eta zelangoa dan bera» nik erantzungo dautsot, agiri dan gauzea da ba gaztai aundiak txikiak baño esne geyago bear dauena. Beraz aztara begiratu bear da itaun oferi egokiz erantzuteko, ta gexorik gagozanean zer gaitz daukagun yakiten osagileagana, zetan edo atan gure eskubi-deak noragiñokoak diran yakiten lagi-gizonagana erduten garan lez, gaztaya egiteko zenbat esne bear dan yakiten, goazan gaztagiña beragana ta dantzugun bere aburua, bere eretxia, bera da ofetan osagilerik eta lagi-gizonik aituena-ta. Berak erabagiko dausku auzi au ta gorago yo-beafik be eztogu izango. Ara zer diñoskun aonetzaz len aita-tu dogun artzai aitu-burutsuak... «Mayatzean edo Aprilean amabi asunbrek zortzi

libre-inguru yaukek (gaztaya); geroago ta geyo yaukek, eta azkenerako asunbreko librea yaukek...» Amen, ba, gure auzia erabagita, ta itzok obeto aituteko gogoratu dagigun Gorbaie'ko ardiak Epala'ren erdi-antzean asten dirala umegiñan eta berandukoenak egin orduko gitxienez Yoñala'ren erdia izaten dala; gaztaya egiten asi orduko Yoñala'ren erdia.

Beraz Gorbaie'ko artesneak lelengo ile bietan (ardiek bedar bigunean dabiltzan ilek) *litro* ala txopiñeko 166,666 aztakin ala *gramo* gaztai daukoz gitxi goiti-beiti; gerora txopiñeko geituaz doa gaztaya ta atzenean —Garagañila-atzenean eta Dagonila'ko lelengo amabostean —txopiñeko 250 aztakin-gaztai. Dakizuenez, esneak txopiñeko 1.030 aztakin daukoz: beraz Gorbaie'ko artesneak 1.030 esne-aztakiñeko 166'666 gaztai-aztakin daukoz lelengo ile bietan; euneko 16'18 gaztai, enparaba gatzura. Azkenean euneko 24'27 gaztai. «... ardiak esne asko emoteko prantzesa (bedar baltza), baña ona emoteko landea; asko emoteko odei-beroa: zenbat

eta beroago esne geyo...»—diño gure ar-
tzain argi-txeratsuak. Beraz esne ona emo-
teko ta gaztai gozo-koipetsu-apitza egiteko
ardiari landa-bedaña emon bear yako, ta be-
dar au gogofagoa-ta ohea, goragokoa, leku
eguzkiztauagokoa ta ohea. Gaztai ona egi-
teko ezta ona bedar biguna ta añubekoa,
ofetariko bedañean dabilzan ardien esneak
koipea ufi dauko-ta; au dala-ta Euzkadi'n
mendi goitsuetako gaztaya, Gorbaie'koa, Ur-
bia'koa, Aralar'koa, Efonkal'ekoa ta abar
obesten da ta guk be obesten dogulakoxe
artu dogu geure idazpurutzat *Gorbaie'ko
gaztai egikerea.*

Eta bigafen atal aunetan gaztaya zelan
egiten dan ikusi dogunezkero ta idazkai au
luze be ba'doa-ta, irugafen atalean bete-be-
tean sartzea ondo deritzat, irakurleoi gogait
ez eragiteko. Baña auzetik itz bitan esan
bear dautzuet gaztanotzarak zimitzezko-
ak eta burdiñezkoak oituten dirala *orain*
Gorbaie'n, «...gazan-otzarak zimitzezko-
ak e ta burdiñezkoak biek izan dozak Gor-
baie'n, baña zimitzezkoak eztozak txaña-

go...»—diño ainbet bider aitatu dogun artzañak. Zurezko gaztan-otzarea bost bat neurkin-eunen zabalerako uztaya, azpialdetik (aldea batetik) zimitz zabalakaz safatuta ta gudari-txapela dirudi.

III ATALA

EGIÑEZKERO GAZTAYARI EGIN BEAR YAKONA

Gaztaya egindakoan gaztan-otzaran bertan isten da, ta ganera gatza egozten yako; gatza artu dagian, eta gatz au urtu ta bafura obeto sartu dakion, gaztayari gatzurapur bat botaten yako ganera, ta aolan eukiten da gaztaya egun-erdi baten ala luzaroago, gaztan-otzara beafik ezpadago. Gero gaztan-otzaratik atera ta gaztan-olean iminten da, gatza ondo artu ta azala egiñarte.

Eginbañian gaztaya zuria izaten da, Gorbaietan margorik etxako botaten-da; gerora baña txabolako keagaz belegitu (oritu) egiten da, ta atzenerantza gofi-baltzerandu.

Or Urbia'ko artzañak gaztaiari margoa egozteko beren-beregiko lekuak dabezala bein baño geyagotan entzun izan dot, baña egia dan ala eztan yakiteko erea saritan izan dodanañen, beti galdu izan dot era ori ta ondiño be yakiteke nago. Baña Urbia'koetaz dana dala, Gorbaie'koak eztaukie ofetarako leku berezirik edo beren-beregikorik. Gorbaie'koak eurak dagozan txabolan bertan daukiez gaztayak be, txabola-ataka-ondoan aldamen bietan, irudian *G-O* izkiekaz ixentau doguzan lekuetan, *gaztanolak* deritxen olen ganean eñeskada bi ala irutan eskegita, saguak-eta eldu eztakiezan.

Gorbaie'n eztago artzairik, beretzakoak izanezik, zortzi-amabost egunez gorako gaztairik txabolan daukonik; zortzien-zortzien eroaten dabez saltzen-da. Ori bai; artzañak beretzako, berak udazkenean eta neguan yateko, eztauz gaztairik txafenak itxiko: Gorbaie'ko artzaña ezta tximur utsa bere buruegaz, daukonagaz badaki bere burua yaboten. Geyenak etxeak ur-samar daukiez-ta, etxekoen bat gaztaitan zortzien-zortzien

etorten yake, geyenetan barikuz, egun atan eta larunbat gabaz gaztanyak garbituta urango igandean albefietara (Zeanuri, Areatza, Ubidea, Orozko e. a.) saltzen eroateko. Beraz Gorbaie'ko gaztairik geyena egin-bafitan saltzen da, bafitan yateko, baña inok artzañai liortzeko gaztaya eskatzen ba'dautse, orduan ardura aundiagoagaz egiten dabeta etxean eukiten dabe aldikada baten gaztan-tsareetan ala gaztan-oletan ondo legortuta margoztu daiten. Ganera, irauteko ala liortzeko ezta bardin ona edozein iletako gaztaya. «Gaztaya asko yateko onena Mayetzekoa (Ofila); yakie edo inder geyekoa San Antonio'rik auferakoa; sikitu edo leortuteko Mayetzeko gaztaya galdu gitxiego eiten dok, baye koipetsuego San Antonio'rik auferakoa....»—diñosku osterá be gure artzain txeratsuak.

Gaztaya galdu egiten dala oraintxe entzundozue; gaztaya galdu dala esaten da bafuan afak egiten yakozanean. Batzuetan afak moltzoka egiten yakoz, eta gaztayari afak egiten ba'yakoz, zuloen bat daukolako egi-

ten yakoz. Nere ustez zulo ofeitán euliak afautzak isten dabez eta euliok yayota ma maño egiten diranean gaztaya yaten diñar-
due.

Amen laburto azalduta Gorbaie'ko artzañien gaztai-egikerea. Eztakit zuben itxaropena bete ala atzipetu izan izango dodan; neure aldetik baña ondo egin ezpa'dot be alik ondoen egiteko neure arloa alegindu nazala dautort. Beste batzuk obeto legikie, baña besteok agiri eztiran eta ixilik dagozantean, usterik eta asmorik onenagaz agertu naz zuben aúrean.

Gorbaie'ko artzañiak gaztaya zelan dagien bakafik esan dautzuet, euren gaztanegikerea eztot bekaldu efi auferatuetako gaztanegikereagaz, gure artzañiak gaztagintzan afotzak baño auferago ala atzerago dagozan ikusteko, baña aonetzaz eta beste gauza askotzaz itz egin genegianafen eta ofetarako gogobarik ezkagozanafen, bildur naz idazkai au luziegi eztagidan, eta au ta geyago be beste idazkai batzuetarako itxi bearko.

Jaungoikoak lagun, gai aoneitaz geyago didazket.

Eta emen amaituko dot neure idazkai-itzaldi au, baña ez lelengo Bizkai-aldundia'ri uar bat egintzake. ¿Zetan dago Bizkai-aldundia Aldaminpe'tik Igiriñao'rako bitxabala eginbarik? Entzun dodanez, bide ori egiteko bear dan txindia ixentauta eta berezita dago; bidea bañiz bear-bea'ekoa dana ¿nok eztakus? A'ra-te Baltzeta'ko Mune ufutu'tik zear egun batzuetan auntzak be nekez igeroko leitekez bilin-bolanka zea'ra-bera yausibarik, alan be eulondoetan. Lenago bide ofetatik gitxi ibiltan zan eta meatz; orain bañiz, Gorbaie'n yaupea dagonetik ezkeru gitxienez zortzien bein bide ofetatik zear ibili bear dabe amasei-ogeibat artzañek eta mendigoizale askok. ¿Gure dei au alpe'rik izango ete da? Ba'leiteke, len be ofenbeste yaso izan da-ta.

Eta orain guztioi biotz-biotzetiko eske'ak, idazkai-itzaldi motel au entzunaz egin daustazuen omenagaitik.